

«Alderdi»-n, «Euzko-Gogoa»-n, «Gure Herria»-n eta abar datoz Monzon'en lanak.

(Ikus N. Ormaetxea, *Eusko Jakintza*, 1947, 700 orr.; Pierre Lafitte, *E. Jakintza*, 1947, 13 orr.; S. Onaindia, MEOE, 1064 orr.; G. Garriga, *Bol. Amer. E. V.*, 1957, 127 orr., ta 1959, 87 orr.; J. San Martín, *Escritores euskéricos*, 132, orr.; Añamendia, *Literatura*, IV, 92 orr.; A. M. Labaien, *Teatro Euskaro*, II, 174 orr.).

58.—MARIA ETXABE ALDAI (1904-...)

Zarautz'en jaio zan 1904-3-5'an. Euskaltzale xamurra, olan agertzen bai zaigu azken guda aurretik, idatziaz eta or-emengo errietan ainbat itzaldi emanaz; politikazkoak baiño geiago, cuskeraren aldekoak ziran itzaldiok.

1936'an bere jaioterritik aldegin bearrean gertatu zan, Bizkaira, Santander'a ta Prantziara jorik babes eta aterpe billa. Lau urtean orrela aizeak joriko osto antzera ibilli ondoren, berriz etxeratu zan. Bere sendia oso erasotua izan zan, Zarauz'eko Errialde Batzokiko sortzailleetakoak ziran-eta. Aspaldi danik ementxe bizi dira iru aizpa alkarrekin, ezkongabeak.

1929'garrenean, Gipuzkoa'ko Aurrezki Kutxa Probintzialak literatura batzaldi bat jarri zuen, bere aldizkari «Juventud» zeritzanak eratuta. Teatru-saillan M. Etxabe'k jaso zuen lenengo saria. *Iziaz'ko Ama* zan bere lana, iru ekitalditako antzerkia, Salvador Arriola apaizaren «La Virgen de las Angustias» euskeraz jarrita. Azpeltia'n eman zuten lenbabizi 1929-9-7'an.

«Euskal Esnalea» alkarteak, itzaldiak eratu oi zituen, 1926'tik 1931'ra, sei-zazpi itzaldi urtean; Donosti'ko Gipuzkoa Ateneo'an edo-ta «Novedades» saloian izaten ziran geienik. 1930-4-27'koa Etxabe andereñoak eman zuen, gai oni buruz: *Zorionaren iturria gizonak non du?*

Euskera txairoa du. *Iziar'ko Ama* saritu ziotenean, Aztertzale'k —G. Muxika'k— onela: «Ederki euskeratua dago izan ere antzerki au. Euskera argi, legun, goxoan, antzerkian gertatzen danari dagokion bezelaxe».

(Ikus Aztertzale, *Euskal Esnalea*, 1929, 167 orr.; *Euskal Esnalea*, 1930, 81 orr.; Auñamendi, *Literatura*, IV, 106 orr.).

59.—ERROMAN IRIGOIEN MITXELENA (1904-...)

Giartzun'en jaio zan arren, 1904-4-2'an, Altza'n daukagu aspaldian bertoko sendalari. Orain ala ere, 1976'gn. 12-26'an idazten zidanez, zaartua beretarren artean bizi da, atsedentsu. «Ni...? Leengo bidean —dio—. Leen osasun-ezan errenkura ba'nun, orain, geigo zartu naizenean, ia, ia ez jan (beldurrez, ez gogo faltaz), ez edan, eta ez erre, zer esan? Doi-doi *bixi*... Baiñan, ori bai: gustora etxetik ia atera gabe nereen artean eta irakurri ta irakurri...».

Bost seme-alaben aita, izan ditu bere buruausteak auek aurrera ateratzeko. Baiña lanak poz ta ondasunak dakartzki, eta muiño gaiñeko erriska ortan bere sendalaritzan txintxo jokatuturik, bostai karrera emateko lain ere irabazi izan du, ta gaur pozik da, berak dioskunez.

KOPLARI.—Ikasketak Valladolid'eko ta Madrid'eko Goi-ikastetxeetan osotu zizkigun; ala ere, egundo bere izkuntza, beste askok bezela, saiets utzi gabe. Gertakari bitxia noski: euskal literaturan osagille jakintsu naikoa ditugu euskal lan politak ondu dizkigutenak. Beste karreradun batzuk egin ez dutenez, nunbait. Irigoien jaunak barnean zekarren umetatik bere izkuntzari buruzko lera bizia, ta gutxi-asko beti landu izan du zerbait, olerki xamur sakonak biribilduz batez ere. Zaletasun au gaiñera, bere seme-alabai ere itsatsi die: bere